

Sagardo Egunaren zilarrezko ezteiak

Edari preziatuaren hitzorduak alorreko erreferente nagusietako bat bihurtu du Usurbil

◊ Eguraldiak lagunduta, jendez lepo bete ziren pilotalekuan, Dema plazan eta Askatasuna plazan jarrita zeuden erakusmahaiak. Giro bikaina, 25. aldian. Bertakoaz gain, munduko hainbat txokotako sagardoa dastatzeko aukera izan zen. Errusia, Irlanda, Kanada, Mexiko, Britainia, Asturias eta Kantabriako sagardo ekoizleek ordezkaritza izan zuten Usurbilen.

Iaz, Sutegi kultur etxe berrian, erakusketa bat atondu zen, eta garai bateko argazki, kartel, edalontzi eta prentsan argitaratutakoak bildu ziren. Baita film labur bat ere. Urteen poderioz ekimenak izan duen eboluzioa ikusteko parada izan zen.

Edanari laguntzeko urteroko talo edota pintxo goxoek ere ez zuten hutsik egin. Ezta bazkariak ere. Udarregi ikastolako plazan, karpa handi baten azpian, herritar andana bildu zen bazkaritarako ere. Arratsaldean, jaiak trikiti doinuekin jarraitu zuen; upelak pilotalekuan jarritako erritmoak, frontoi atzeko txosnak eta edaritegiak, parranda giroaren lekuko. Dena jendez gainezka.

Aurten, egun handi horren atarian, girotzeko ekitaldirik ez da falta izan. Sagardoa botatzeko teknika hobetzeko tailerra antolatu zen. Horrez gain, sagardo dastatze afaria, sagar eta sagardoaren inguruko sukaldaritza ikastaroa eta Sagarrondotik Dator Sagardoa bertsopaper lehiaketa antolatu zituzten. Alorra bertatik bertara ezagutzeko, azken hilabeteetan, lau astean behin, sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldi gidatueta parte hartu ahal izan da.

Hori guztia, mende laurden honetan antolatze lanetan gogor aritu diren herritarrei esker. Haiek gabe Sagardo Egunak zilarrezko ezteiak ez baitzituen beteko.

Aitzaga bi urterako itxi zuen Guardia Zibilak

Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Fernando Grande-Marlaskaren aginduz, otsailaren 11n Guardia Zibilak Aitzaga elkarte itxi zuen, bi urterako, Batasuneko mahai nazionalako ki-deak bertan bildu zirela argudiatuta. Batasunaren ekintza oro bertan behera uzten zuen epaia

kaleratu zuen aste batzuk lehenago.

Grande-Marlaskak otsailaren 9an elkarteko hiru bazkide deklaratzera deitu zituen, eta hurrengo egunean, epaileak Aitzaga ixtea agindu zuen. Horrekin batera, Espainiako segurtasun indarrei herriko tabernen ekin-tzak ikertzea agindu zien.

Agindua egun eta erdi geroago bete zen. Tarte horretan, komunikabide ugari eta ehunka herritar bildu ziren *herriko etxearen* parean. Baita ezker abertzaleko hainbat ordezkari ere. Denak, gerta zitekeenaren zain. Hilaren 11n 19:30 aldera agertu zen Guardia Zibila, idazkari judizialarekin batera. Bertan zeudenen protesten artean, tabernan zeudenak kanpora irtenarazi, eta lokala prezintatu zuten. 500 herritar baino gehiago bildu ziren gertaerak salatzen izan zen manifestazioan.

Ordutik, inputatuen eta elkar-tearen izenean, bi helegite aurkeztu zituzten. Baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Oztopoak oztopo, Aitzaga kultur elkar-tea ez zuten baliogabetu. Egoitza itxi arren, urtean hainbat ekitaldi antolatu dituzte.